

2017KO EKAINAREN 5EKO AGINDUA, EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURETAKO SAILBURUARENA, 2017KO IRAILAREN 20KO AGINDUAREKIN ALDATUTA, EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURETAKO SAILAREN 2017. URTERAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUENA.

Testu kontsolidatua

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua ezartzen duenez, nahitaez eduki behar da diru-laguntzen plan estrategiko bat, eta bertan identifikatu behar dira, sailen diru-laguntzei dagokienez, diru-laguntzen aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburu eta ondorioak, diru-laguntza horiek emateko beharrezko epea, aurreikusten diren kostuak, eta haien finantzaketa-iturria, eta beti aurrekontu-egonkortasuneko helburuak bete beharko dira.

Arau hori betez, plan hau sailaren sustapen-politiken plangintzarako tresna da, 2020rako Euskadiko gobernu-planaren konpromisoen barruan ardazturik (2016-2020 programa).

Plan hau egiteko, 2016-2020 aldirako gobernu-programan eta indarrean dauden diru-laguntzen programetan definitutako interes publikoak aztertu dira eta plan honen indarraldian horretarako eskuragarri dauden baliabideekin erkatu dira. Era horretan, eraginkortasun-maila eta efizientzia-maila areagotzea bermatzen da, eta baita gure jardun-eremuan gardentasuna indartzea ere.

Ohartarazi behar da, dena den, planak izaera pragmatikoa duela legealdi honetarako 2016-2020 aldiko Euskadiko gobernu-programaren jardunen esparru orokorraren barruan, eta hori horrela, haren edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen, eta haren eraginkortasuna diru-laguntza lineak praktikan jartzeak baldintzatzen du, egungo aurrekontu-bitartekoak kontuan izanda, besteak beste.

Horrenbestez, sailaren gainerako jardunen antzera, Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoak honako hauek ditu erronka eta ardatz estrategiko nagusi:

- Hazkunde sendoa, enplegu gehiago eta hobe dakarrena
 - .- Industria lehiakorragoa ezagutzaren ekonomian.
 - .- Egoera ahuleko eremuak suspertzea
 - .- Enpresak nazioartekotzea
 - .- Lehen sektore errentagarri, berritzaile eta lehiakorra
- Hazkunde jasangarria
 - .- Garapen jasangarria lortzeko azpiegiturak.

Sailak proposamen hau egiteko eskumena du, honako xedapen hauetan oinarrituta: Jaurlaritzari buruzko Legearen (ekainaren 30eko 7/1981 Legea) 26. artikulua; 24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen; eta 74/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura eta zereginak finkatzen dituen. Aurrekoa ikusirik eta eskumen horiek baliatuta, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehena.- Eranskin gisa ageri den «2017ko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa» onartzea.

Bigarrena.- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak ematen dituen diru-laguntzak plan horretan ezarritakoari egokitu beharko zaizkio, eta egungo aurrekontu-bitartekoek baldintzatuko dute betiere.

Planean aurreikusten ez den edozein diru-laguntza jardunek espedientean justifikatu beharko du bertan bildu ez izana, eta egindako aurrekontu-aurreikuspenak berregokitzeko eskatuko du.

Hirugarrena.- 2018ko lehen hiruhilekoaren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 49.8 artikulua araberaren egiten den diru-laguntza programen ebaluazioaren barruan, planaren betetze-maila ebaluatuko da. Egindako balorazioa oinarri izango da diru-laguntzen hurrengo plana egiteko.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 5a.

MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURETAKO SAILBURUA
ELEKTRONIKOKI SINATUA

ERANSKINA

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILAREN DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA - 2017KO EKITALDIA

1.- Planaren justifikazioa.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua ezartzen duenez, nahitaez eduki behar da diru-laguntzen plan estrategiko bat, eta bertan identifikatu behar dira, sailen diru-laguntzei dagokienez, diru-laguntzen aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburu eta ondorioak, diru-laguntza horiek emateko beharrezko epea, aurreikusten diren kostuak, eta haien finantzaketa-iturria, eta beti aurrekontu-egonkortasuneko helburuak bete beharko dira.

Manu hori betetzeko sailek izan beharreko jarduna bideratzeko, 1/2015 zenbakiko zirkularra onartu du Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, diru-laguntzen plan estrategikoak egiteari buruzkoa, zenbait neurri biltzen dituen plan horiek egin eta onartzeari begira.

Zirkular hori betetzeko egin da plana, bertan ezarritako edukiarekin eta diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean eskatutakoa beteta.

2.- Aplikatu beharreko eremua.

Planak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren diru-laguntzen arloko jardura biltzen du.

Planari ezarritako denbora-tartea 2017 aurrekontu-ekitaldia da. Diru-laguntzen programei dagozkien fitxek 2016. eta 2017. urteei dagozkien aurrekontu-zuzkidurak jasotzen dituzte halaber.

3.- Proiektuaren edukia

Aurreikusitako diru-laguntza jardunak txertatzen diren konpromisoak biltzen ditu planak, betiere gobernu-programaren konpromisoei lotutako ardatzetako bakoitzari jarraikiz.

Ondoren, identifikatu egiten ditu, laburpen gisa, diru-laguntza programa guztiak egikaritzeko aurreikusitako kostuen datu globalak, programa horiek sailak bere egituran dituen antolakunde-unitateekin lotuta.

Azkenik, planak fitxa bat biltzen du diru-laguntza programentzat, eta bertan bilduko ditu helburuak, ekintzak eta adierazleak, aurreikusitako denbora-jokalekuarekin, helburu dituen sektoreak, diru-laguntzak emateko prozedura, beharrezkoak diren aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publikoaren ehunekoa.

4.- Erronka estrategikoen eta helburuen identifikazioa

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa XI. Legealdiko 2020rako Gobernu Programaren konpromisoekin lerrokatzen da, eta, konpromiso horien barruan, sailaren jardun-eremuak erantzuten dienekin, honako hauekin, hain zuzen ere:

4.1 I.1 ardatza- Hazkunde sendoa, enplegu gehiago eta hobia dakarrena

4.1.1 Industria lehiakorragoa ezagutzaren ekonomian

Gure ongizaterako eta gure ekonomia garatzeko, funtsezkoa da Euskadik aurrerantzean ere ekonomia-sare indartsua edukitzea, munduari irekia, eta produktibitatea hobetzearen alde apustu egitea, berrikuntza eta giza baliabideen prestakuntza bidelagun dituela.

Horretarako, gure industria-sarea modernizatu behar dugu, «Basque industry 4.0» estrategian aurrera eginez: fabrikazio aurreratu eta adimentsuko sistema berriak sartu behar ditugu, eta heziketa- eta prestakuntza-sistemak ingurune berri honen eskakizunetara egokitu.

Horretarako, 2017-2020 aldirako Euskadiko Industrializazio Plana egitea aurreikusten da. Horren helburuen artean egongo dira:

- Industriak EAEko ekonomian duen pisuari eustea eta sendotzea, produkzio-enpresen lehiakortasuna bideratuko duen testuingurua eratuta.
- Beste sail eta erakunde batzuekin batera, enpresa-proiektu bideragarrien berregituraketa- eta biziraupen-proiektuak babestea, industria-ehunaren eskura dauden finantzaketa-iturriak eta -tresnak indartzea eta dibertsifikatzea.
- EAEko ekonomiaren kanporako irekitze-maila areagotzea.
- Balio erantsia duten jarduera eta inbertsio atzeritar berriak erakartzea, euskal ekonomiaren lehiakortasuna indartzeko.

- Euskadik lehiatzeko abantaila jasagarriak gara ditzakeen etorkizuneko energia-alorretan industriaren eta teknologiaren garapena sustatzea.

- 3E2020 Energia Estrategian definitutako energia-politika ezartzea.

Era berean, laguntza eman behar diegu ETEei eta zailtasunak dituzten enpresei, neurriak martxan jarritz haien egoera lehiakortasunaren arabera birbideratzeko eta epe ertain eta luzera haien bideragarritasuna baldintzatzen duten finantza-desorekei aurre egiteko. Lehia askean erakundeek esku-hartzea minimizatzeko irizpidean oinarrituta, lehia-baldintzak azkar eta egonkorki berrezartzen lagunduko duten finantza-tresnak garatzearen eta aplikatzearen alde egin du Eusko Jaurlaritzak, zailtasun-egoeratik irteteko prozesu formalak azkartuz eta inplikaturako alderdi guztiei etorkizunera begira benetako konpromisoak eskatuz.

Laguntza hori gauzatzeko, finantzaketa-tresna eta abal publikoak sustatu behar dira, Euskadiko enpresa txiki eta ertainen ekoizpenerako inbertsioko eta finantzaketa beharrak babesteko. Era berean, partaidetzako-maileguak eman behar dira, inbertsioa eta industria-ekipamenduak berritzea sustatuz eta izaera teknologikoko inbertsioak babestuz.

Beharrezkoa da proiektu industrial estrategikoen garapena erraztea eta inbertsio-funts publiko-pribatu bat sustatzea, teknologiarako eta nazioartekotzerako potentzialtasuna duten euskal enpresen hazkundera eta lurraldearekiko atxikimendua bermatzeko.

Euskal Ekintzailtza Sistema indartu nahi da, gizartearen kultura ekintzailea aktibatze eta kanpoko talentu ekintzailea erakartzeko, horrela Euskadi lurralde ekintzailtzat sendotzeko. Horretarako, ezinbestekoa da Ekintzaileei Laguntzeko 2017-2020 aldirako Plana egitea.

Euskal erakundeek ikerkuntzaren eta berrikuntzaren aldeko apustua egin dute denboraren joanean, beti enpresen hobekuntza lehiakorra eta aberastasun ekonomikoa eta soziala sortzen laguntzeko ikuspegiarekin.

Estrategia horren ondorioz sortu da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistema, eta orain egokia da horren bikaintasuna areagotzea. Sistemaren ardatz nagusia Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemako agenteek osatzen dute. Sarea berriz antolatu da, bertako kide diren agenteen tipologia desberdinak definitu baitira ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuan.

2020rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren (ZTBP) xedea da euskal gizartearen ongizatea, hazkunde ekonomiko jasagarria eta enplegua hobetzea, espezializazio adimentsua eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren eraginkortasunaren hobekuntza oinarri dituen ikerkuntza- eta berrikuntza-politika baten

bidez, Euskadik Europako eskualde berritzaile gisa duen posizioa indartzeko helburuarekin. Orain, bada, plan hori ezarri beharra dago.

Euskal enpresak lehiakorragoak izan daitezen, berrikuntza ez-teknologikoa eta enpresa-kudeaketa aurreratua garatzeari ekingo zaio, kudeaketa-eredu hori euskal enpresetara zabalduz.

Euskadi industria alorreko elektronika, informatika eta komunikazioen arloko teknologien (EIKT) Europa mailako erreferentea izan dadin, 2020rako Euskadiko Agenda Digitala ezarriko da, lehiakortasuna, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko teknologia-aukeren aprobeztamendua errazteko.

Horretarako, industria adimenduna sustatuko da, fabrikazio aurreratuko talde gidaritik eratorritako ekimen estrategikoak ezarriko dira, zibersegurtasuneko euskal zentro bat sortuko da eta banda zabal ultraazkarra autonomia-erkidegoko lurralde osora hedatuko da, batik bat jarduera ekonomikoko eremuetara eta zona periferikoetara.

Banda zabaleko sareari dagokionez, gobernu-kontseiluak, 2016ko uztailaren 19ko bilkuran, erabaki zuen Ekonomia Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2015eko abenduaren 11ko proposamena onestea. «Belaunaldi berriko banda zabaleko sareak Euskadiko industrialdeetara zabaltzea» programari buruzkoa zen eta 10.700.000 euroko zenbatekoa zuena, eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari esleitu zitzaion programa horren espedienteak izapidetzea eta hura arautzeko oinarriak onartzea.

Ondorioz, 2016ko uztailaren 20ko Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren agindu bidez aipatutako programa arautu zen eta 2016ko deialdia egin zen. Aurtengo ekitaldiari dagokion deialdia prestaketa-fasean dago iazko geldikinarekin (8.739.848,10 euro).

Beharrezkoa da Kudeaketa Aurreratuaren eredua zabaltzea euskal enpresen artean, lehiakorragoak izan daitezen.

4.1.2 Europako helburuekin bat egiten duen energia-estrategia

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak badu titulu bat, XXI.a, hain zuzen, energia-politikari buruzkoa. Bertan, oinarritzko helburu batzuk ageri dira: energia-merkatuaren funtzionamendua bermatzea; Batasunaren energiaren horniduraren segurtasuna bermatzea, energia-efizientzia eta energia aurrezteko sustatzea, bai eta energia-iturri berri eta berriztagarrien garapena ere, eta energia-sareen interkonexioa sustatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoak hainbat ekintza abiarazi ditu energiaren alorrean, tartean Energiaren Euskal Erakundearen sorrera, 1982an, azaroaren 24ko 9/1982 Legearen bidez.

2030erako Euskadiko Energia Estrategiak (3E2030) beste helburu batzuen artean, ezartzen du energia-efizientziarekin lotutako jarduketak areagotu behar direla kontsumo-sektore guztietan, 2030rako 1.250.000 aurreztuz, eta amaierako energia-intentsitatea % 33 hobetu behar dela. Horrela, petrolioaren azken kontsumoa % 18 murriztu nahi da 2030erako, 2015ekin alderatuz, garraioaren sektorearen deslotura sustatuz.

Testuinguru horretan, egungo administrazio publikoen energia-jasangarritasunaren legearen aurreproiektua sustatu nahi da.

Lege-aurreproiektuak energia-jasangarritasunaren araudiaren oinarriak ezartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, energia-efizientzia eta -aurrezpeneko neurrietan eta energia berriztagarrien ezarpena sustatzekoetan oinarrituta, energia-politikaren jarraibideen arabera. Horretarako, euskal administrazio publikoek bete beharreko egitekoak eta obligazioak ezartzen dira. Administrazio horiek, gainera, zeregin eredugarria izan behar dute eremu horretan. Horretarako, egitura honen arabera antolatzen da: hiru kapitulu, hiru xedapen gehigarri eta amaierako bi xedapen.

Euskadiko 2030eko Energia Estrategia sektoreka garatu nahi da, energia berriztagarriak sustatzeko berariazko planak eginez: Euskadiko Plan Eolikoa / Biomasa Plana / Plan Fotovoltaikoa / Plan Geotermikoa / Itsas Energiaren Plana.

Era berean, garapen teknologiko eta enpresariala indartuko da, energia-iturri berriztagarri eta jasangarriak erabiltzeko, energia aurrezteko eta efizientzia indartzeko proiektuentzako finantzaketa-tresnak sustatzeko eta banatutako energiaren esperientzia pilotuak abiarazteko.

4.1.3 Egoera ahuleko eremuak suspertzea

Programa integralak aktibatuko dira, egiturazko aldaketa handiak izaten ari diren eremuetan edo Europar Batasunaren Eskualde Laguntzen Mapak (DAR) jasotzen dituen krisi larriak jasaten ari direnetan jarduteko.

Tokiko eta eskualdeko garapen-planak bultzatuko dira, ekonomiaren eta gizartearen dinamizazioa bultzatzeko indize sozioekonomiko larrienak dituzten udalerrietan, EAEren batez bestekoa baino langabezia tasa nabarmen handiagoak jasaten dituzten udalerrietan, altzairuaren krisiak bereziki eragindako udalerrietan edo, puntako enpresak

itxi edo lekualdatu dituztelako, enplegu galera handiak pairatu dituzten udalerrietan. “Indartu” bezalako programen eta Sprilurren bidez, eremu horietan jardungo da bereziki.

Jarduera horiek foru- eta toki-administrazioarekin elkarlanean egingo dira.

4.1.4 Enpresen nazioartekotzea

Enpresen nazioartekotzea Euskal Industria Politikaren helburu estrategikoetako bat izan da. Gai horri dagokionez, 2017-2020 aldirako Enpresen Nazioartekotze Plana ezarriko da.

Testuinguru horretan, enpresen nazioartekotzea sustatuko da «Basque Country» estrategiaren barruan. Horretarako, laguntza emango zaio euskal enpresari nazioartekotzerako eta aukera ekonomikoak bilatzeko, marka sustatuko da euskal enpresen kanpoko posizionamendua hobetzeko, enpresen esportazio-jarduerei laguntza emateko programak indartuko dira eta Spiren kanpoko sarea sendotuko da, lehenetsuneko herrialdeetan hedatzeko aurrerapausoak eginez.

4.1.5 Lehen sektore errentagarri, berritzaile eta lehiakorra

Euskadiko lehen sektorea garatzeko konpromisoarekin, jarduketa hauek aurreikusi dira:

Araudiari dagokionez, landa ingurunearen garapenerako Legea (apirilaren 8ko 10/1998 Legea) aldatuko da.

Abeltzaintza-sektoreari laguntzeko planeko konpromisoak gauzatuko dira (2015-2020 aldirako landa-garapeneko Osoa programa) eta sasoikako lanaren IV. arreta-plan integrala idatziko da 2017-2021 aldirako. Era berean, nekazari gazteentzako 2020 Gaztenek Plana ezarriko da, bai eta «Itsasoratu» ekimena ere, eta Nekazaritza Ekologikoaren Plana garatuko da.

Elikaduraren sektorean, basogintzan eta arrantzan ekintzailletza bultzatuko da, eta bertako nekazaritza-elikagaiak eta basogintzako produktuak merkaturatzea sustatu.

Era berean, zurgintza-sektore integral lehiakor bat egituratuko da, teknologikoki aurreratua.

Arrantza-sektorean Euskadiko 2020rako Arrantza eta Akuikultura Plana garatuko da, eta zenbait jarduketa burutuko dira arrantza-kuotak kontsolidatu eta banatzeko,

kudeaketa propioaren bidez, euskal ontzidiak arrantzan modu jasangarri eta lehiakorrean aritzeko modua izan dezan.

Arrantzako organismo ordaintzailea sortuko da.

Nekazaritza eta elikagaigintzako produktuak eta jarduera sustatzeko konpromisoarekin, jarduketa hauek aurreikusi dira:

Gastronomia eta elikagaien plan bat ezartzea.

Euskal elikagaiak merkaturatzeko, zabaltzeko eta haien inguruan sensibilizatzeko estrategia integrala garatzea.

Elikagaigintza-enpresen nazioartekotzea sustatzea eta

Eusko Label eta jatorri-deiturak dituzten produktuen egungo araudiak egokitzea.

4.2 I.2 ardatza - Hazkunde jasangarria

4.2.1 Mugikortasun jasangarria eta garraio publikoa

Eremu horretako garraio-politika eta diru-laguntza politika pertsona eta ondasunen mugikortasun-premiei erantzuteko bideratuta dago, eta albait modurik jasangarrienean eta gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-errentagarritasun handienarekin egiteko.

Egin beharreko jardueren artean, intermodalitatea sustatu behar da pertsonen zein salgaien garraioan, txartel bakarraren bidezko tarifen integrazio-sistema indartu behar da, garraio-sare publiko integratu eta koordinatu bat sustatuz eta gertutasuneko logistika-zentroak garatuz, motordun ibilgailuen bidezko mugikortasuna garatuz.

Era berean, laguntzak bideratuko dira, Euskadiko garraiobide guztietan txartel bakarra ezartzeko lanekin aurrera jarraitzeko.

Lankidetzaz sustatu nahi da errepideko garraio zerbitzu segurua, fidagarria eta eraginkorra eratzeke, trenbide sarea osatzeko, eta errepideko garraio sektoreak merkaturatu lehiatzea ahalbidetuko dion dimentsionamendu egokia lortzen lagundu nahi da.

Era berean, beharrezkoa da garraio-sektoreko elkarte profesional eta enpresa-elkarteen jarduerak eta ekimenak sustatzea, eta, horretarako, asoziazionismoa sustatzeko programa mantentzen da.

Garraio jasangarriaren gidaplana egin eta ezarriko dela nabarmendu behar da: Euskadi 2030 eta Mugikortasun elektrikoaren plan integrala

Mugikortasun jasangarriko lege bat onartuko da, eta Euskadiko Garraio Agintaritzaren Legea aldatuko da

4.2.2 Garapen jasangarria lortzeko azpiegiturak.

Garraio-azpiegituren gainean garatzen da garraio-politika, eta lehentasuntzat garraibide jasangarrienak sustatzea eta Europarekin trenbide-lotura garatzea ditu, korridore atlantikoaren bidez azken kasu horretan.

Euskadik, gainera, mugikortasun handia izaten du, bere barne-eskaritik zein ipar-hego kontinentaleko eta ekialde-mendebalde penintsularreko iragaite-mugikortasunetik datorrena. Horregatik, garraio jasangarriko erantzunekin kudeatu behar da mugikortasuna, garraio-sistemaren oreka modal handiagoa lortuz, baita garraio segurua, prebentziozkoa eta kalitatezkoa ere.

Hedadura handiko mugikortasun-esparru horretan garatuko da Euskadiko zentro logistikoetan garraio multimodalak eskaintzen duen potentzial ikaragarria, lehiakortasun ekonomikoko faktore gisa

Euskadiren posizioa indartuko da ardatz atlantikoan, Iberiar penintsularen eta Europaren artean, euskal Y-aren eraikuntza amaituz eta Y-a Euskadiko hainbat lekutara eramanez eta lurperatuz.

Era berean, trenbide-garraioa hobetuko da, Renferi eta Feveri aldirietako lineen transferentzia eskatuz; Euskotrenen sarearen hiri-integrazioa hobetuko da, Donostialdeko metroa eraikitzen jarraitu eta Gasteiz eta Bilboko tranbia handituko dira, eta Loiuko aireporturako trenbide bidezko lotura diseinatuko da.

Bestalde, Euskadiko Portuen Legearen proiektua onartuko dela aurreikusten da, portu eta aireportuetan jarduketa integral koordinatu bat egiteko asmoarekin; gainera, aireportuen arloan oraindik transferitu ez diren eskumenak eskatuko dira, Loiu, Foronda eta Hondarribiaren artean kudeaketa-eredu koordinatu eta osagarri bat ezartzeko.

Bilbo eta Pasaiaiko portuen kudeaketaren transferentzia eskatuko da, halaber.

Azkenik, mugaz gaindiko garraio-politikak garatu nahi dira Nafarroa eta Akitaniako eskualdeetako agintariekin elkarlanean arituz, lurralde horiekiko interkonexioa hobetzeko asmoz.

5.- Saileko sailburuordetzei dagozkien diru-laguntzen programen laburpena

5.1.- Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza.

Ardatz estrategikoa: Industria lehiakorrak ezaugarri ekonomian.
Euskadi 2020 Agenda Digitala

Helburu estrategikoa:		Lurralde adimendun eta kohesionatua		
Organoa:		Ekintzaitetzaren, Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritza		
Programa:		Belaunaldi berriko banda zabalaren hedapenaosatzea		
Diru-laguntzen lerroa: NGA banda zabala hedatzea enpresa-industrialdeetara				
Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
		2016	2017	
Helburua Belaunaldi berriko banda zabala erabilgarri egotea Euskadiko enpresa-industrialde guztietan Ekintza laguntzak ematea telekomunikazio-enpresei belaunaldi berriko banda zabala halakorik ez duten industrialdeetara hedatzeko. Adierazlea Zerbitzua ematen zaien eremu zurietako enpresa-industrialdeak (egun NGA konexiorik ez dutenak)		225/470	174/174	
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko.(				
	2016		2017	
	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
Aurrekontuz kanpoko finantzaketa	10,7 milioi Proiektu Estrategikoen Funtseko soberakinen kontura			
Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura				
Helburu dituen sektoreak:		Telekomunikazio-enpresak		
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:		Lehia. Diru-laguntza ez-itzulgarria		

Ardatz estrategikoa: Industria lehiakorrak ezaugarri ekonomian.

Helburu estrategikoa: Gaikuntza teknologikoa eta enpresako I+Gren bultzada		
Organoa: Teknologia eta Estrategia Zuzendaritza / Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza		
Programa: HAZITEK, enpresen I+G-ri laguntzeko programa		
Diru-laguntzen lerroa: Proiektu estrategikoen lerroa eta proiektu lehiakorren lerroa		
Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2016	2017
Helburua: Ikerketa Industrialeko edo Garapen Esperimentaleko Proiektuak egiteko laguntza, lehiaren eta estrategiaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sektorean, bai eta 2020rako Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planaren barruko espezializazio esparruetan ere.		
Ekintza: Izaera estrategikoko proiektuen kasuan:		
Adierazleak:		
Diruz lagundutako proiektu estrategiko bereizien kop.	4	4
Diruz lagundutako proiektu estrategiko bereizien kop.	30	30
Proiektu estrategikoetan diruz lagundutako enpresen kop.	170	170
Ekintza: Izaera lehiakorreko proiektuen kasuan:		
Adierazleak:		
Diruz lagundutako lankidetzako lehiakortasun-proiektuen kop.	630	630
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileekin abiarazitako lehiakortasun-proiektuen kop.	600	600
Produktuen garapenerako diruz lagundutako proiektuen kop.	800	800
Produktuen garapenerako proiektuetan diruz lagundutako enpresen kop.	780	780
Garapen bidean diren produktu berrien kop.	400	400
Teknologian oinarritutako enpresa berriak abiarazteko proiektuen kop.	80	80
Teknologian oinarritutako enpresa berriak abiarazteko proiektuetan lagundutako eragileen kop.	125	125
Teknologian oinarritutako enpresa berriak abiarazteko proiektuetan lagundutako enpresen	15	15

kop.				
Sortzen ari diren teknologian oinarritutako enpresa berrien kop.		40		40
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa				
	2016		2017	
	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
7. kapitulua Hazitek estrategikoak	30.000.000	3 (4 aurrekontu- ekitaldi)	31.400.000	3 (4 aurrekontu- ekitaldi)
7. kapitulua Hazitek lehiakorak	38.000.000	1 (2 aurrekontu- ekitaldi)	38.925.393	1 (2 aurrekontu- ekitaldi)

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Enpresak, ETEak eta enpresa handiak, enpresa-elkarteak eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko agenteak (teknologian oinarritutako enpresa berrien proiektuetarako)
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia. Diru-laguntza ez-itzulgarria

Ardatz estrategikoa: Industria lehiakorragoa ezagutzaren ekonomian.

Helburu estrategikoa: Gaitasunen konbergentzia eta I+G+b-ren sustapena lankidetzan				
Organoa: Teknologia eta Estrategia Zuzendaritza / Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza				
Programa: ELKARTEK, alor estrategikoetan lankidetzan oinarritutako ikerkuntza babesteko programa				
Diru-laguntzen lerroa: ELKARTEK, alor estrategikoetan lankidetzan oinarritutako ikerkuntza babesteko programa				
Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
		2016	2017	
Helburua: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea osatzen duten ikerketa, garapen eta berrikuntzako erakundeek egindako Elkarlaneko Ikerketa sustatzeko laguntza, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskadi 2020 Planaren espezializazio-arloetan jasota dagoen bezala.				
Ekintza: Lankidetzan oinarritutako ikerkuntzarako laguntzak, alor estrategikoetan				
Adierazleak:				
Alor estrategikoetan lagundutako oinarritzko lankidetzako ikerkuntza-proiektuak		9	30	
Lagundutako Industria potentzial handiko ikerketa-proiektuen kop.		10	30	
Diruz lagundutako Interes bereziko ekintzen kop.		15	5	
Lagundutako eragileen kop.			75	
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa				
		2016		2017
		Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua	Zenbatekoa eurotan Urtesari kopurua
7. kapitulua ELKARTEK		26.000.000	2 (3 aurrekontu-ekitaldi)	25.600.000 2 (3 aurrekontu-ekitaldi)
Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura				

Helburu dituen sektoreak:	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agenteak
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia. Diru-laguntza ez-itzulgarria

Ardatz estrategikoa: Industria lehiakorragoa ezagutzaren ekonomian.

Helburu estrategikoa: Gaitasun zientifiko-teknologikoen sorrera				
Organoa: Teknologia eta Estrategia Zuzendaritza / Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza				
Programa: EMAITEK PLUS, teknologia-zentro multifokalizatueta eta ikerketa kooperatiboko zentroetako jardura ez ekonomikoa laguntzeko programa				
Diru-laguntzen lerroa: EMAITEK PLUS				
Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
			2016	2017
Helburua: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko teknologia-zentro multifokalizatueta eta ikerketa kooperatiboko zentroetako jardura ez ekonomikoa laguntzea, jardueraren emaitzen ebaluazioaren eta analisiaren bitartez, maila globalean, finantzaketa esleituz EMAITEK PLUS programaren bidez.				
Ekintza: Teknologia-zentroen eta ikerketa kooperatiboko zentroen jarduerarentzako laguntza, horien emaitzen analisiaren bidez				
Adierazleak:				
Lagundutako zentroen kop.			14	14
Argitalpen zientifikoaren kop.				1.000
Eskatutako patenteen kop.				80
Azken bost urteetan sortutako teknologian oinarritutako enpresa berrietako lanpostuen kop.				30
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa				
	2016		2017	
	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
7. kapitulua EMAITEK PLUS	52.650.000	1 (2 aurrekontu-ekitaldi)	53.000.000	1 (2 aurrekontu-ekitaldi)

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Teknologia-zentro multifokalizatuak eta ikerkuntza kooperatiboko zentoak
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia. Diru-laguntza ez-itzulgarria

Ardatz estrategikoa: Industria lehiakorragoa ezagutzaren ekonomian.

Helburu estrategikoa: Gaitasun zientifiko-teknologikoen sorrera

Organoa: Teknologia eta Estrategia Zuzendaritza / Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza

Programa: BERRIKERTU, ZTBESeko enpresa eta agenteetan ikertzaileak kontratatatzeko laguntza-programa

Diru-laguntzen lerroa: BERRIKERTU

Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
	2016		2017	
Helburua:	Laguntza ematea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileetan eta enpresetan giza kapital ikertzailea sartzeko, itzuli behar ez diren diru-laguntzen bitartez, langile ikertzaileak kontratatatzeko.		2015ean hasitako kontratazioen 12 hilabete	2016an hasitako kontratazioen 12 hilabete
Ekintza:	Berrikertu Programa			
Adierazleak:				
Diruz lagundutako ikertzaileen kontratazio berrien kop.	100		120	
Kontratua berritu zaien ikertzaileen kop.	25		40	
Diruz lagundutako ikertzaileen kontratazio berrien kop.	75		80	
Diruz lagundutako ikertzaileen kontratazio berrien kop.	50		70	
ZTBESeko agenteetan kontratatutako doktore berrien kop.	25		10	
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa				
	2015-2016		2017	
	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
4. kapitulua BERRIKERTU	2.000.000	1 (2 aurrekontu-urte)	2.100.000	1 (1 aurrekontu-urte)

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Enpresak, ETEak eta enpresa handiak, enpresen I+G unitateak, teknologia-zentro multifokalizatuak eta ikerkuntza kooperatiboko zentroak
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia. Diru-laguntza ez-itzulgarria

Ardatz estrategikoa: Industria lehiakorragoa ezagutzaren ekonomian.

Helburu estrategikoa: Finantza-laguntza proiektu berritzaileei		
Organoa: Teknologia eta Estrategia Zuzendaritza / Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza		
Programa: Finantza-laguntzako programa I+G+b-ko inbertsioarentzat, energia-efizientziako eta energia garbietako neurrientzat eta inbertsio zientifiko-teknologikoarentzat.		
Diru-laguntzen lerroa: INNOBERMEA		
Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2016	2017
Helburua: Finantza-operazioen arriskuaren finantzaketa, honako gai hauekin lotutako proiektuak egiteko: I+G, azpiegitura teknologikoak, energia-efizientzia eta energia garbiak.		
Ekintza: INNOBERMEA programa		
Adierazleak:		
Lagundu beharreko gehieneko finantzaketa-bolumena	150 milioi euro	

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa				
	2016		2017	
	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
8. kapitulua IINNOBERMEA	FEIk kudeatutako berme-funtseko 30 milioi			
Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura				
Helburu dituen sektoreak:		Industria-sektoreko edo lotutako zerbitzuetako enpresak, teknologia-zentroak, ikerkuntza kooperatiboko zentroak eta enpresen I+G unitateak, ZTBESari esleitutakoak eta		

	EAEn egin beharreko inbertsio-proiektuak dituztenak
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia.
	Bermeen bidezko laguntza

5.2.- Industria Sailburuordetza

Ardatz estrategikoa: Industria lehiakorragoa ezagutzaren ekonomian.

Helburu estrategikoa:				
Organoa: EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA Saila				
Programa: 7613				
Diru-laguntzen lerroa: Nazioartekotze-bekak				
Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
		2016	2017	
Helburua				
Ekintza				
Adierazlea				
Nazioartekotzean espezializatzeko bekak.				
1. 2017ko promozioan prestatutako bekadunen kop.		100		100
2. Hitzarmena EHUrekin, nazioartekotze-beken prestakuntza-programa berezko titulu bezala onartzeko		1		1
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa				
		2016		2017
		Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua	Zenbatekoa eurotan
				Urtesari kopurua

45301. kapitulua	1.422.716	3	1.422.716	3
Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura				
Helburu dituen sektoreak:	Goi-mailako unibertsitateko titulua duten Euskadiko gazteak			
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Konkurtso-prozedura			

Ardatz estrategikoa: Industria lehiakorragoa ezagutzaren ekonomian.

Helburu estrategikoa:	
Organoa:	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila
Programa:	7613
Diru-laguntzen lerroa:	Gauzatu, kanpo-ezarpenak

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2016	2017
Helburua Ekintza Adierazlea 2. ETEen inbertsiorako finantza-laguntzak. GAUZATU K.E. programa 1. Kanpoan ekoizpena ezartzeko proiektuak.	10	10
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa		
	2016	2017
	Zenbatekoa	Urtesari kopurua
	Zenbatekoa	Urtesari

	eurotan		eurotan	kopurua
82332. kapitulua	5.000.000	10	5.000.000	10
Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura				
Helburu dituen sektoreak:	Euskadiko ETEak			
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Aurrerakin itzulgarriak, konkurtsoz kanpoko prozedura			

Ardatz estrategikoa: Enpresak nazioartekotzea

Helburu estrategikoa:	
Organoa:	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila
Programa:	7613
Diru-laguntzen lerroa:	Global Lehian

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2016	2017
Helburua		
Ekintza		
Adierazlea		
1. ENPRESEN NAZIOARTEKOTZE-PROZESUAK SUSTATZEA		
GLOBAL LEHIAN programa.		
BETETZE-ADIERAZLEAK.		
1. Hasierako fasea. Nazioartekotze-planak egiteko laguntzak	80	80
2. Sendotzeko fasea. Nazioartekotze-proiektuak abian jartzeko	400	400

ekintzetarako laguntzak.		
3. Lankidetzan egindako proiektuetarako laguntzak.	25	25
4. Kanpoko ezarpenetarako proiektuetarako laguntzak: merkataritzakoak, ekoizpenekoak eta zerbitzu-enpresenak.	20	20
5. Nazioartekotzearen arloko espezialistak kontratatzekeo laguntzak, erakundeak eta enpresak merkatu globalaren eskakizunetara egokitzeko.	100	100
INPAKTUAREN ADIERAZLEAK (esportazio-oinarriaren hazkundera eta kanpoko ezarpenak).	30	30
	5	5
	20	20
1. Programako enpresa berrien %a.		
2. Ezarpenak dauzkaten enpresa berrien %a.		
3. Nazioartekotzearen arloko espezialisten kontratazio berrien %a.		

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa

	2016		2017	
	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
45200 001 kapitulua	5.520.000	2	5.520.000	2

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Euskadiko ETEak
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, konkurtso-prozedura

Ardatz estrategikoa: Enpresak nazioartekotzea

Helburu estrategikoa:
Organoa: EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA Saila
Programa: 7613
Diru-laguntzen lerroa: Global Training

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2016	2017
Helburua		
Ekintza		
Adierazlea		
2. 2. programa: Global Training mugikortasuneko bekak		
1. 2017ko promozioan prestatutako bekadunen kop.	410	410

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa		
	2016	2017

	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
45499. kapitulua	2.060.000	2	2.060.000	2

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Goi-mailako unibertsitateko titulazioa eta goi-mailako lanbide heziketa duten Euskadiko gazteak
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Konkurtso-prozedura

Ardatz estrategikoa: Industria lehiakorragoa ezagutzaren ekonomian.

Helburu estrategikoa:
Organoa: EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA Saila
Programa: 7613
Diru-laguntzen lerroa: LANdhome

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2016	2017
Helburua <i>Kanpoan lanean ari diren Euskadiko profesionalak euskal enpresetara itzultzeko pizgarriak sustatzeko laguntza publikoak.</i> Ekintza: Euskadira itzuli diren euskal profesionalen kontratazioa Adierazlea Programa: LANdhome Atzerrian bizi diren eta Euskadiko enpresetara itzuli diren euskal profesionalen kopurua	1	1

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa
--

	2016		2017	
	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
45200. kapitulua	200.000	2	200.000	2

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresak, banaka edo lankidetzan, Euskadira itzuli diren euskal profesionalak kontratatzeko.
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Ondoz ondoko konkurrentziaren prozedura

Ardatz estrategikoa: Industria lehiakorragoa ezagutzaren ekonomian.

Helburu estrategikoa:	
Organoa:	EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA
Programa:	7613
Diru-laguntzen lerroa:	ELKARTZEN 2017

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2016	2017
Helburua		
Ekintza		
Adierazlea 1. Nazioartekotze-proiektuentzako laguntza 1. Elkarrekin sustatutako proiektuak	332	330

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa
--

	2016		2017	
	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
45499. kapitulua	1.600.000	2	1.600.000	2

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	SEKTORE GUZTIAK
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	KONKURTSOZ KANPOKO PROZEDURA

Ardatz estrategikoa: Enpresak nazioartekotzea

Helburu estrategikoa:	
Organoa:	EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA
Programa:	7613
Diru-laguntzen lerroa:	INTERLEHIAN 2017

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2016	2017
Helburua		
Ekintza		
Adierazlea 3. Nazioarteko lizitazioetan parte hartzea errazteko laguntzak		
1. Lehiaketa eta lizitazioetan parte hartzea	21	10
2. Euskadiko enpresa parte-hartzaileak	12	20

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa
--

	2016		2017	
	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
45200. kapitulua	300.000	1	200.000	1

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	SEKTORE GUZTIAK
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	KONKURTSO-PROZEDURA

Ardatz estrategikoa: Industria lehiakorragoa ezagutzaren ekonomian.

Helburu estrategikoa: Oinarri teknologikoa duten edo berritzaileak diren ETEen sorrera eta garapena bultzatzea, etorkizunerako lehiakortasun-estrategia gisa, enplegua sortzen duten inbertsioak babestuz.		
Organoa: Industria Sailburuordetza / Industria Garatzeko Zuzendaritza		
Programa: GAUZATU INDUSTRIA		
Diru-laguntzen lerroa: Finantzaketa - Laguntza itzulgarria.		
Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2016	2017
Helburua 1. ENPRESEN HAZKUNDEA LAGUNTZEA FINANTZAKETA ERRAZTUZ ETA EGUN DAUDEN ETA SORTUKO DIREN TRESNEN KUDEAKETA KOORDINATUA ETA ERAGINGARRIA BERMATZEA	.	
Ekintza Oinarri teknologikoko ETE eta ETE berritzaileen sorrera eta garapena bultzatzea GAUZATU INDUSTRIA programa		
Adierazlea Diruz lagundutako enpresen kop.	50	50

Eragindako inbertsioa (milioi eurotan).	100	100
Enpleguak	500	500

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa				
	2016		2017	
	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
8. kapitulua	26.000.000	11	28.000.000	11

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Erauzketako, ekoizpeneko eta eraldaketako industria-enpresa txiki eta ertainak, zerbitzu teknikoak ematen dituztenak (produktu-prozesuari lotutakoak), eta teknologian edo berrikuntzan oinarrituta daudenak. Industria-taldeak, baldin eta eskaera aurkeztu duen enpresak % 100eko akzio-partaidetza badu taldeko gainerako enpresetan.
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehiarik gabeko konkurrentzia. Izaera teknologikoa eta/edo berritzailea batzorde batek ebaluatzea. Bi erakunderen lankidetzak, bat emakidak eta ordainketak aztertu eta proposatzeko eta beste bat ordainketak egiteko eta itzulketak kobratzeko.

	Izapideak: 1. Enpresak eskaera egitea. 2. Emakida-ebazpena ematea. 3. Inbertsioa gauzatzea 4. Inbertsioen aitortzea egitea. 5. Inbertsioak ikuskatzea. 6. Diru-laguntza itzulgarria ordaintzea. 7. Enpresak itzulketak autolikidatzea.
--	---

Ardatz estrategikoa: Industria lehiakorragoa ezagutzaren ekonomian.

Helburu estrategikoa: Industria-makina berrietan egin beharreko inbertsioak sustatzea, produkzio-ekipamenduetan modernizazio-maila altua lortzeko eta, aldi berean, ekipamendu horiek laneko segurtasun eta osasun arauetara egokitzeko.
Organoa: Industria Sailburuordetza / Industria Garatzeko Zuzendaritza
Programa: <u>RENOVE MAKINERIA</u>
Diru-laguntzen lerroa: Laguntza ez-itzulgarria.

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2016	2017
Helburua 1. ENPRESEN HAZKUNDEA LAGUNTZEA FINANTZAKETA ERRAZTUZ ETA EGUN DAUDEN ETA SORTUKO DIREN TRESNEN KUDEAKETA KOORDINATUA ETA ERAGINGARRIA BERMATZEA	.	
Ekintza 1. Makina erremintaren Renove Plana		
Adierazlea	200	200

Diruz lagundutako enpresen kop.		
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan).	20	60
Enpleguak	200	200

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa				
	2016		2017	
	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
7. kapitulua	8.000.000	2	9.000.000	2

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Euskal Autonomia Erkidegoko industria-enpresa txiki eta ertainak (ETEak). Kanpo geratzen dira Eusko Jaurlaritzako honako eremu hauei dagozkien inbertsio-proiektuak dituzten enpresak: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila; Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila; Ingurumen eta Lurralde Politika Saila; eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Nekazaritza eta Arrantza arloa.
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehiarik gabeko konkurrentzia. Batzorde exekutibo bat egotea. Analisia, emakida eta ordainketa erakunde laguntzaile baten bidez egiten da, eta ikuskaritza beste erakunde laguntzaile baten bidez.

	Izapideak: 1. Enpresak eskaera egitea. Salerosketa-kontratuarekin eta % 10 ordainduta. 2. Emakida-ebazpena ematea. 3. Inbertsioa gauzatzea Ordaindua 4. Inbertsioen aitortzea egitea. 5. Inbertsioak ikuskatzea. 6. Laguntza ez-itzulgarria ordaintzea.
--	---

Ardatz estrategikoa: Industria lehiakorragoa ezagutzaren ekonomian.

Helburu estrategikoa: Krisi-egoeran dauden enpresak berriz egituratzea eta berriz abian jartzea
